

## 7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure aplikazioak garapen prozesu bat beharko du zenbait alderdi eraldatzean gure ideia errealitate bat bihurtzeko. Baliabide ekonomikoei dagokienez, aplikazioaren abiapuntua guk aurretik izandako edo lortutako diruan funtsatuz eta aldi berean aplikazioaren bilakaeraren analisia eginez gero bilakaera egokia bermatuz, aplikazioa sendotzeko eta merkatuan indartsuagoa egiteko asmoz inbertitzaileetara edo maileguetara joko dugu zalantzarik gabe.

Giza baliabideei dagokienez, proiektuaren ideiarekin garatzaileak 4 ikasle izango gara zehaztu beharra dago. Baina, ez dugu ahaztu behar ideia hori errealitate bihurtzeko beste zenbait arlotan espezializatutako langileak beharko ditugula; horren adibide informatikoak edo aplikazioak garatzeko gaitasuna duten pertsonak, baita ere aplikazioak arazoak sufritzen baditu arazo horri irtenbidea aurkitzeko gaitasuna izango dutenak. Informatikoak eta aplikazioaren garapenaren ardura izango dutenak 4 langile izango dira hasiera batean. Hortaz gain, ofizinako langileak beharko ditugu aplikazioaren barnean dauden kideen galderei edo eskaerei erantzuteko, hauen lana ere funtsezkoa izango da gure lehen pausetarako, lehen arloan bezala arlo honetan ere 4 langile izango ditugu hasiera batean.

Baliabide fisikoak beraz, bi oinarriko arloetan banaturiko 8 langileetan oinarritzen dira. Gainera, gure proiekturako ezinbestekoa izango dugu teknologia berrienekin lan egitea eta enpresa egoitza bat izatea zenbait ofizinekin. 8 langile ditugunez 8 ordenagailu eskuratuko ditugu hauek lan egiteko eta informatikoentzako teknologia hoberenak hartuko ditugu eta ofizinako langileentzat bere funtzioak ondo betetzera bideratutako ordenagailu sinpleago bat erosiko dugu.

Egoitzari dagokionez, zerbait sinplea izango da hasieran eta 3 departamentutan banatuko dugu: informatika departamentua, komunikazio departamentua eta zuzendaritza departamentua.

Azkenik, baliabide intelektualei dagokienez, gure ideia patentatzeko asmoa dugu horrek eragiten duenarekin; zalantzik gabe gastuak izango direla argi dago baino hainbat abantaila ekarriko dizkio gure proiektuari.